Astigarragako Udala
Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

# UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2020IPLE0013
**Eguna:** 2020-12-22
**Ordua:** 19:00 – 19:27
**Tokia:** Areto Nagusia

**Bertaratuak**

- Xabier Urdangarin Lasa .......... Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda.......... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena.......... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez .......... Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez .......... Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide .......... Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz .......... Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües **(3. aztergaian)**.......... Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro.......... Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco.......... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco.......... Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo.......... Udal-talde Sozialista

**Bertaratu ez direnak**

**Idazkaria**

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| 2020ko azaroaren 24ko aktaren onarpena. | *1* | Aprobación del acta de 24 de noviembre de 2020. |
| Administrazioarekiko 522/2020 auzi-errekurtsoa. | *2* | Recurso contencioso administrativo 522/2020 |
| 2021eko aurrekontua. Behin betiko onarpena | *3* | Presupuesto 2021. Aprobación definitiva. |
| 2020ko aurrekontua. 2020-KALD-0010 kreditu aldaketa kreditu gehigarri modalitatean: Behin betiko onarpena | *4* | Presupuesto 2020. Modificación de créditos 2020-KALD-0010 en la modalidad de crédito adicional. Aprobación definitiva. |
| 2020ko aurrekontua. 2020-KALD-0011 kreditu aldaketa kreditu tranferentzia modalitatean | *5* | Presupuesto 2020. Modificación de créditos 2020-KALD-0011 en la modalidad de transferencia de créditos. |
| EHBilduren Mozioa, gizarte zerbitzuen euskal sistema arreta sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa | *6* | Moción de EHBildu relativa a la defensa del sistema vasco de servicios sociales como red pública organizada de atención |
| EHBilduren Mozioa Europar Funtsak Udaletara bideratzeari buruzkoa | *7* | Moción de EHBildu sobre la derivación de los Fondos Europeos a los Ayuntamientos |
| Sare Astigarragak urtarrilaren 9ko "Bidea | *8* | Declaración institucional de Sare Astigarraga para |

| | | |
|---|---|---|
| gara"mobilizazioarekin bat egiteko adierazpen instituzionala. | | sumarse a la movilización "Bidea gara"" del 9 de enero. |
| Informazio, galdera eta eskariak. | *9* | Información, ruegos y preguntas. |

**Esan-eginak eta erabakiak**

**1.- <u>2020ko azaroaren 24ko aktaren onarpena.</u>**

Antton abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako, gainerakoak, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

**1. <u>Aprobación del acta de 24 de noviembre de 2020.</u>**

El concejal Antton se ha abstenido, al no estar presente en la reunión anterior, el resto votan a favor. Por tanto, se aprueba el acta.

**2.- -.Administrazioarekiko 522/2020 auzi-errekurtsoa.**

Alkateak, Bozeramaileen Batzordeak onartutako erabaki-proposamen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*Ikusirik Donostiako administrazioarekiko auzien 2 zkiko epaitegiak jakinarazi duela EXCAVACIONES ASTIGARRAGA SL enpresak 522-2020 zenbakia duen auzi-errekurtsoa jarri duela uztailaren 21eko osoko bilkuraren erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa ezezten duen irailaren 29ko osoko bilkuraren akordioaren aurka*

*Kontuan harturik udalak bere ondasunak eta eskubideak defendatzeko beharrezko diren legezko akzioak egikaritzeko betebeharra duela.*

*Kontuan harturik apirilaren 21eko 11/1999 legeak aldatutako toki araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 legearen 21.1.k artikuluan eta bat datozen aginduetan aurreikusitakoaren arabera, alkateari dagokiola ekintza judizial eta administratiboak egitea eta udala babestea bere eskumeneko arloetan, beste organo baten esku utzi dituen arren. Baita, premiazko kasuetan, udal osoko bilkuraren eskumeneko gaietan ere. Azken kasu horretan, udal osoko bilkurari lehendabiziko saioan eman beharko zaio berri, berritsi dezan.*
*Kontuan harturik aenduaren 10eko alkatearen 1121/2020 Dekretuaren bidez, honako hau ebatzi dela:*

***"Lehena.-** Uztailaren 21eko osoko bilkuraren erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa ezezten duen irailaren 29ko osoko bilkuraren akor-*

**2.-<u>Recurso contencioso administrativo 522/2020</u>**

El alcalde presenta para su aprobación, la siguiente propuesta de acuerdo, aprobada por la Junta de portavoces:

*Visto que el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 2 de Donostia le ha notificado al AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA que EXCAVACIONES ASTIGARRAGA SL ha interpuesto el recurso nº 522-2020, contra acuerdo plenario de 29 de septiembre por el que se desestima el recurso de reposición interpuesto contra el acuerdo plenario de 21 de julio.*

*Considerando que el Ayuntamiento tiene la obligación de ejercitar las acciones legales necesarias en defensa de sus bienes y derechos.*

*Considerando que de acuerdo con lo previsto en el artículo 21.1.k de la Ley 7/1.985, reguladora de las Bases del Régimen Local y preceptos concordantes (modificada por la Ley 11/1999, de 21 de Abril), corresponde al Alcalde el ejercicio de las acciones judiciales y administrativas y la defensa del Ayuntamiento en las materias de su competencia, incluso cuando las hubiere delegado en otro órgano; y, en caso de urgencia, en materias de la competencia del pleno, en este supuesto dando cuenta al mismo en la primera sesión que celebre para su ratificación."*

*Considerando que por Decreto de Alcaldia 1121/2020, de 10 de diciembre, se ha resuelto:*

***"Primero.- Personarse en el Recurso Contencioso-Administrativo nº 522-2020***

*dioaren aurka aurka EXCAVACIONES ASTIGARRAGA SLk jarritako **522-2020 zenbakiko administrazio-arekiko auzi-errekurtsoan** agertzea.*

***Bigarrena.-** Aipatutako auzi-errekurtsoan Udal honen interesak defendatzeko, abokatu-lana Nekane Azarola Martinez abokatuaren esku uztea, eta prokuradoren-lanak Isabel Marin Cano prokuradorearen esku.*

***Hirugarrena.-** Ebazpen honen berri Osoko Bilkurari ematea, egiten den lehenengo bilkuran, berretsi dezan".*

*Aipatutako guztiagatik, PROPOSATZEN DA:*

***Bakarra**.- BERRESTEA, Excavaciones Astigarraga SL enpresak, irailaren 29ko osoko bilkuraren erabakiaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan agertu izana; bai eta horren defentza Miren Nekane Azarola Martínez abokatuari eta Isabel Marin Cano prokuradoreari agindu izana ere.*

Ondoren, bozkatu egin da eta proposamena **aho batez onartu da**.

*interpuesto por EXCAVACIONES ASTIGARRAGA SL, contra acuerdo plenario de 29 de septiembre por el que se desestima el recurso de reposición interpuesto contra el acuerdo plenario de 21 de julio.*

***Segundo.-** Encomendar la defensa de los intereses de este Ayuntamiento en el Recurso señalado a la abogada Doña. Miren Nekane Azarola Martínez, así como a la Procuradora Isabel Marin Cano.*

***Tercero**.- Dar cuenta de la presente resolución al Pleno, en la primera sesión que se celebre, para su ratificación."*

*Por todo lo expuesto, se PROPONE:*

***Único**.- RATIFICAR la personación en el recurso contencioso administrativo interpuesto, por Excavaciones Astigarraga SL, contra acuerdo plenario de 29 de septiembre; así como la encomienda de su defensa a la abogada Miren Nekane Azarola Martínez y a la Procuradora Isabel Marin Cano.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** la propuesta por **unanimidad**.

## 3.- 2021eko aurrekontua. Behin betiko onarpena

Alkateak azaldu du 2021eko Aurrekontu Orokorra (Udalaren Aurrekontu Propioa, Astigarraga Lanzen SA sozietatearen aurrekontua, Sagardun partzuergoaren aurrekontua, aurrekontua betearazteko arauak, langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda jasotzen dituena) hilak 18a arte egon dela jendaurrean, eta ez direnik alegaziorik aurkeztu, behin betiko onartu dela.

## 3.- Presupuesto 2021. Aprobación definitiva.

El alcalde explica que el Presupuesto General 2021 del Ayuntamiento (que engloba el Presupuesto Propio del Ayuntamiento, el Presupuesto de las sociedad Astigarraga Lantzen, S.A., el Presupuesto del consorcio Sagardun, las normas de ejecución presupuestaria y plantilla de personal y relación de puestos de trabajo) ha estado en exposición pública hasta el día 18, y que al no haberse presentado alegaciones, ha quedado aprobado definitivamente.

## 4.- 2020ko aurrekontua. 2020-KALD-0010 kreditu aldaketa kreditu gehigarri modalitatean: Behin betiko onarpena

Alkateak azaldu du espedientea jendaurrean egond en epean ez dela alegaziorik aurkeztu, eta, beraz, behin betiko onartu dela.

## 4.- Presupuesto 2020. Modificación de créditos 2020-KALD-0010 en la modalidad de crédito adicional. Aprobación definitiva.

El alcalde explica que durante el plazo de exposición pública del expediente no se han presentado alegaciones, y que en consecuencia ha quedado aprobado definitivamente.

**5.- 2020ko aurrekontua. 2020-KALD-0011 kreditu aldaketa kreditu tranferentzia modalitatean**

Alkateak 1088/2020 Dekretuaren berri eman du, aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea (kreditu transferentzi modalitatekoa) onartzen duena.

**5.- Presupuesto 2020. Modificación de créditos 2020-KALD-0011 en la modalidad de transferencia de créditos.**

El alcalde da cuenta del Decreto 1088/2020 por el que se aprueba el expediente de modificación de créditos presupuestarios en la modalidad de transferencia de créditos.

**6.- EHBilduren Mozioa, gizarte zerbitzuen euskal sistema arreta sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa**

Alkateak azaldu du EAJ-PNVk ordezko testu bat aurkeztu duela, biak bozeramaileen Batzarrean aztertu direla, eta erabaki dela osoko bilkurari – bere onarpenerako – EHBilduk aurkeztutako mozio hau aurkeztea:

*"Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema "arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikokoa", "titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz" osatua.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioa egiteko prozesuak argitara eman du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak jasan duen pribatizazio-politika bizia. Egoera hori askotan salatu bada ere, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioak agerian utzi du honen dimentsioa. 2011. eta 2018. urteen artean, foru-aldundiek, batez ere Arabakoak eta Bizkaikoak, adinekoentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan plaza berriak irekitzeari utzi zioten —eta, kasu batzuetan, sare publikoko plazen kopurua murriztu egin zen—, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara arreta eta zaintza eske hurbiltzen ziren herritarrei 'txeke-zerbitzuak' ematen hasi ziren. Hala, 2011n EAEko administrazioek 1.753 'txeke-zerbitzu' ematen zituzten, baina 7 urte geroago, 2018an, kopuru hori 2,5 aldiz handitu zen, 4.489 'txeke-zerbitzu' izateraino.*

*Zerbitzu publiko batek izan dezakeen pribatizazio-modurik muturrekoenak hartu duen dimentsioa erabaki politiko batean oinarritzen da: Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa 'zerbitzu-txeke' gisa instrumentalizatzea. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen esparruan sortutako prestazioa,*

**6.-Moción de EHBildu relativa a la defensa del sistema vasco de servicios sociales como red pública organizada de atención**

El alcalde explica que EAJ-PNV ha presentado un texto alternativo, que ambos se han tratado en la Junta de Portavoces, y se ha acordado presentar – para su aprobación – la siguiente moción presentada por EHBildu.

"*La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales establece que el Sistema Vasco de Servicios Sociales "constituye una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública" integrado "por prestaciones, servicios y equipamientos de titularidad pública y de titularidad privada concertada".*

*El proceso de elaboración de la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV ha sacado a la luz la intensa política privatizadora a la que ha sido sometido el Sistema Vasco de Servicios Sociales. Si bien han sido muchas las ocasiones en las que se ha denunciado esta situación, la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV ha puesto en evidencia la dimensión de la misma. Entre 2011 y 2018, las diputaciones forales, especialmente, las de Araba y Bizkaia, dejaron de abrir nuevas plazas en residencias y centros de día para personas mayores —e incluso en algunos casos se redujo el número de plazas de la red pública—, para comenzar a dar 'cheques-servicio' a la ciudadanía que se acercaba al Sistema Vasco de Servicios Sociales en demanda de atención y cuidado. Así, si en 2011 eran 1.753 los 'cheques-servicio' que daban las administraciones vascas, solo 7 años más tarde, en 2018, esa cifra se había multiplicado por 2,5, hasta los 4.489 'cheques-servicio'.*

*La dimensión que ha tomado la forma más extrema de privatización que puede sufrir un servicio público encuentra su causa en una decisión política: la instrumentalización de la Prestación Económica Vinculada al Servicio como 'cheque-servicio'. Una prestación creada en el marco de la Ley 39/2006, de*

*helburu argi batekin: “Arreta eta zaintzarako zerbitzu publiko edo itundu bat eskuratzea ezinezkoa denean soilik”. Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, ordea, EAEn adinekoen arreta pribatizatzeko erabili da, arreta-sare publikoaren estaldura murrizten zen bitartean.*

*Aurreko guztia EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa egiteko prozesuan azaleratu da. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzeko ibilbide-orri bat ezartzen zuen adostasun politiko zabal baten emaitza izan zen plan hori, eta horren baitan honako hau erabaki zen: “2011n Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak esleitutako plazak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman txertatutako zerbitzuetako plaza (plaza arrunt) bihurtu beharko” dira. Aldiz, 7 urtetan, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako plazen % 6,4 izatetik % 13,5 izatera pasa dira. Jakitera eman den I. Plan Estrategikoaren Ebaluazio dokumentuak arrazoizkotzat aurkeztu nahi du inguruabar hori. Gainera, pribatizazio-politika horren zilegitasuna aitortzeaz gain, kontsideratzen du ‘zerbitzu-txekeak’ kudeaketa-eredu bat gehiago direla —kudeaketa zuzenaren edo kontzertazioaren parekoa—, eta balioa ematen dio administrazioek “plaza” gehiago irekitzeko duten gaitasunari, inbertsio nabarmen txikiagoarekin. Are gehiag,: ebaluazioak politika pribatizatzaile hau beste sektore batzuetara zabaltzearen alde egiten du, hala nola bazterkeriaren edo desgaitasuna duten pertsonen arretara.*

*Aukera honek lotura estua du adinekoen arretan eta zaintzan irabaziak lortzea zilegi dela ulertzen duen ikuspegiarekin. ‘Negozio’ horretara 210 milioi euro baino gehiago bideratu dituzte administrazioek 2011 eta 2019 bitartean. Apustu politiko horrek geriatrikoetan espezializatutako eta atzerriko inbertsio-funtsekin lotutako talde handien ‘gosea’ piztu du; izan ere, azken urteotan gora egin dute EAEko adinekoen egoitza- eta eguneko arretaren errealitatean.*

*Jarduera hori gure arau-esparrutik kanpo dagoela alde batera utzita, are garrantzitsuagoak dira zaintzaileek eta zainduek egunerokoan dituzten ondorio larriak, eta, zoritxarrez, ezagunak dira: zaintzaren kalitatea murriztu egiten da; oso lan-prekarietate handia dakar berekin; erabat diluitzen da zaintzaren erantzukizun publikoa izatearen ideia oro; eta ekitaterik eza sortzen du arreta eta zaintza*

*14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia con una finalidad clara: “únicamente cuando no sea posible el acceso a un servicio público o concertado de atención y cuidado”. En cambio, la Prestación Económica Vinculada al Servicio se ha utilizado para privatizar la atención de las personas mayores en la CAPV, mientras se reducía la cobertura de la red pública de atención.*

*Todo lo anterior ha aflorado en el proceso de elaboración de la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV. Un Plan fruto de un amplio consenso político que establecía una hoja de ruta para el despliegue del Sistema Vasco de Servicios Sociales y en el que se acordó que “las plazas asignadas por la Prestación Económica Vinculada al Servicio en 2011 debieran tender a convertirse en plazas en servicios integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales”. En cambio, en solo 7 años, las Prestaciones Económicas Vinculadas al Servicio han pasado de ser el 6,4 % de las plazas del Sistema Vasco de Servicios Sociales a representar el 13,5 %. Una circunstancia que el documento de Evaluación del I Plan Estratégico dado a conocer trata de presentar como razonable. Aunque no solo se limita a reconocer la licitud de dicha política de privatización, sino que considera que los ‘cheques-servicio’ son un modelo más de gestión —equiparable a la gestión directa o la concertación— y pone en valor la capacidad que tienen para conseguir que las administración abran más “plazas” con una inversión sensiblemente menor. Aunque no se detiene ahí: la Evaluación apuesta por extender esta política privatizadora a otros sectores como la atención a la exclusión o las personas con discapacidad.*

*Esta opción está íntimamente relacionada con una visión que entiende lícito el lucro en la atención y el cuidado de las personas mayores. Un ‘negocio’ al que las administraciones han destinado más de 210 millones de euros entre 2011 y 2019. Esta apuesta política ha despertado el ‘apetito’ de grandes grupos especializados en geriátricos y ligados a fondos de inversión extranjeros, que han ido incrementado durante los últimos años su presencia en la realidad de la atención residencial y de día de las personas mayores en la CAPV.*

*Al margen de que esta actuación se sitúa fuera de nuestro marco normativo, más relevantes son las graves consecuencias en el día a día de quienes cuidan y son cuidadas son, por desgracia, conocidos: se reduce la calidad en los cuidados; lleva aparejada una altísima precariedad laboral; se*

*eskuratzean.*

*Covid-19ren pandemiak agerian utzi du egitura kolektiboak behar direla bizitza eta zaintzak konpontzeko. Lizuna da, hain zuzen ere, orain sakondu nahi izatea arreta eta zaintza beharrak merkantilizatzeko mekanismoetan.*

*Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren izaera publikoa aldatzeak eztabaida soziala eskatzen du, eta erakundeok gure jarrera azaldu behar dugu. Horregatik guztiagatik,*

*1.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatua eta erantzukizun publikokoa dela adierazten du Astigarragako Udalak.*

*2.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman pribatizazio-politikak legitimatzeko, bultzatzeko eta hedatzeko ahalegin oro arbuiatzen du Astigarragako Udalak.*

3.- *Astigarragako Udalak uste du, arreta eta zaintzarako eskubide subjektiboko egoera batean, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren funtzioa mugatu egin behar dela aldi baterako prestazio edo zerbitzu bat eskuratzea bermatu ezin den egoeretara, baldin eta prestazio edo zerbitzu hori administrazio publikoek garatzen ari badira."*

Alkateak adierazi du Bozeramaileen Batzordean mozioa puntuz puntu bozkatzea eskatu dutela, eta ez dutela horretarako arazorik.

Nerea zinegotziak hartu du hitza, eta esan du ez datorrela bat aurkeztutako testuarekin eta 2. eta 3. puntuen aurka bozkatuko dutela. Gaineratu du, osasun-sistemari buruzko mozioan adierazi zuten bezala, kalitatezko sistema baten alde daudela, baina ez datozela bat egiten den irakurketarekin, eta are gutxiago "negozio" bezalako terminoen erabilerarekin.

Mikel zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du ados dagoela mozioaren 1. puntuarekin, eta horregatik eskatu duela puntuz puntu bozkatzea, baina ez datorrela bat 2. eta 3. puntuetan, arrazoi hauengatik: batetik, mozioak Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren zirriborroa hartu duelako oinarritzat, oraindik eztabaidatu ez dena; bestetik, Legeak kudeaketa-sistema mistoa aurreikusten

*diluye por completo cualquier idea de responsabilidad pública en los cuidados; y genera inequidad en el acceso a la atención y el cuidado.*

*La pandemia de la Covid-19 ha dejado en evidencia la necesidad de contar con estructuras colectivas para resolver la vida y los cuidados. Es obsceno que precisamente sea ahora cuando se pretenda profundizar en los mecanismos de mercantilización de las necesidades de atención y cuidado.*

*Alterar la naturaleza pública del Sistema Vasco de Servicios Sociales requiere un debate social en el que las diferentes instituciones debemos mostrar nuestra posición. Por todo lo cual,*

*1. El Ayuntamiento de Astigarraga manifiesta que el Sistema Vasco de Servicios Sociales constituye una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública.*

*2. El Ayuntamiento de Astigarraga rechaza cualquier intento de legitimar, impulsar y extender las políticas de privatización en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.*

*3. El Ayuntamiento de Astigarraga considera que, en un escenario de derecho subjetivo a la atención y el cuidado, la función de la Prestación Económica Vinculada al Servicio debe limitarse a aquellas situaciones en las que no puede garantizarse temporalmente el acceso a una prestación o servicio y cuya provisión se encuentre en curso de desarrollo por parte de las administraciones públicas."*

El alcalde, señala que en la Junta de portavoces se ha pedido que la moción se vote punto a punto, y que no tienen problema para ello.

Toma la palabra la concejala Nerea para manifestar que no comparte el texto presentado y van a votar en contra de los puntos 2 y 3. Añade, que como ya señalaron en la moción sobre el sistema de salud, están a favor de un sistema de calidad, pero comparten la lectura que se realiza, y menos con la utilización de términos como "negocio.

Toma la palabra el concejal Mikel y señala estar de acuerdo con el punto 1º de la moción, por lo que ha solicitado su votación por puntos, pero que no coincide en los puntos 2 y 3, por los siguientes motivos: por un lado, la moción toma como base el borrador del Plan Estratégico de Servicios Sociales, que todavía no ha sido debatido; por otro, la Ley prevé un sistema de gestión mixto; y por último, en

dulako; eta, azkenik, datuetan ez direlako kontuan hartu 2020koak, eta gizarte-segurantzaren kudeaketa Jaurlaritzari dagokio.

Jarraian, mozioa puntuz puntu bozkatu da, eta emaitza hau lortu da:

**1. puntua, aho batez, onartu da:**

*1.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatua eta erantzukizun publikokoa dela adierazten du Astigarragako Udalak.*

**2. eta 3. puntuan onartu dira aldeko 7 botoekin** (*Astigarragako EHBildu), **eta kontrako 6 botoek**in **abstentzio 1ekin** (Udal talde Sozialista eta Astigarragako EAJ-PNV*)

*2.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman pribatizazio-politikak legitimatzeko, bultzatzeko eta hedatzeko ahalegin oro arbuiatzen du Astigarragako Udalak.*

*3.- Astigarragako Udalak uste du, arreta eta zaintzarako eskubide subjektiboko egoera batean, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren funtzioa mugatu egin behar dela aldi baterako prestazio edo zerbitzu bat eskuratzea bermatu ezin den egoeretara, baldin eta prestazio edo zerbitzu hori administrazio publikoek garatzen ari badira*

los datos no se tiene en cuenta los del 2020 y la gestión de la seguridad social corresponde al gobierno central.

A continuación, se procede a votar la moción punto por punto, obteniendo el siguiente resultado:

**Se aprueba, por unanimidad, el punto 1º**:

*1. El Ayuntamiento de Astigarraga manifiesta que el Sistema Vasco de Servicios Sociales constituye una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública.*

**Se aprueba, con 7 votos a favor** (Astigarragako EHBildu) **y 6 votos en contra** (*Grupo Municipal Socialista* y EAJ-PNV de Astigarraga)**, los puntos 2º y 3º:**

*2. El Ayuntamiento de Astigarraga rechaza cualquier intento de legitimar, impulsar y extender las políticas de privatización en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.*

*3. El Ayuntamiento de Astigarraga considera que, en un escenario de derecho subjetivo a la atención y el cuidado, la función de la Prestación Económica Vinculada al Servicio debe limitarse a aquellas situaciones en las que no puede garantizarse temporalmente el acceso a una prestación o servicio y cuya provisión se encuentre en curso de desarrollo por parte de las administraciones públicas.*

## 7.--EHBilduren Mozioa Europar Funtsak Udaletara bideratzeari buruzkoa

Alkateak adierazi du Eudel gaia aztertzen ari dela, baina beldur direla udalerri txikiak baztertzea. Ondoren, testu hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*COVID19aren pandemiak sortutako krisiak gogor eragin du udalen egunerokotasunean eta, batez ere, udalek 2020rako eginiko aurreikuspenetan. Udalek beraien aurreikuspenak alde batera utzi eta beste lehentasun eta beharrizan batzuei egin behar izan diete aurre: herritarren osasun segurtasuna bermatzeko neurriak, garbitasunean zerbitzu gehigarriak ezarrri, gizarte politiken arloan sortutako beharrizan berriei erantzun, herrietako komertzio eta zerbitzuei lagundu... Alarma egoeraren ondorioz,*

## 7.- Moción de EHBildu sobre la derivación de los Fondos Europeos a los Ayuntamientos

El alcalde señala que si bien Eudel está analizando el asunto, temen que se excluya a los pequeños municipios. A continuación, presenta, para su aprobación, el siguiente texto:

*La crisis generada por la pandemia de la COVID19 ha influido fuertemente en el día a día de los ayuntamientos y, sobre todo, en sus previsiones para 2020. Los ayuntamientos han abandonado sus previsiones y se han enfrentado a otras prioridades y necesidades: medidas para garantizar la seguridad sanitaria de la población, establecimiento de servicios adicionales de limpieza, atención a nuevas necesidades surgidas en el ámbito de las políticas sociales, apoyo a los comercios y servicios locales…*

*udal zerbitzu asko bertan behera uzteak ere galera ekonomikoak eragin ditu udaletan.*

*Inbertsioak berrantolatzeaz gain, udalek diru sarreretan ere aldaketak jasango dituzte: batetik, tasa eta prezio publikoen bitartez lortzea aurreikusten zituzten sarrerak murriztuko dira eta, bestetik, foru finantza funtsaren bidez jaso beharko luketen diru kopurua ere asko murriztuko da.*

*COVID19aren krisiak behar berriak sortu ditu, eta erakunde publikoak horiei erantzutera behartuta daude. Udalak herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik, momentu honetan beraien gaitasun ekonomikoa bermatzea oso garrantzitsua da.*

*Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzari udalentzako ez-ohiko funtsa berezia sortzea dagokio gutxienez ondorengo udal premiei erantzuteko:*

*1. Udal zerbitzuetan izaniko galerei aurre egiteko*

*2. Udalek zerbitzuak eta langile postuak telelanera egokitzeko gastuei aurre egiteko*

*3. Herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko*

*4. Arrakala informatikoa, haurren elikadura zein udal eskumenekoak ez diren beste gai batzuetan udalek egindako inbertsioengatik sortutako gastuak ordaintzeko*

*5. Hezkuntza eta osasun arloan udalei sortuko zaizkien beharrizan berriei aurre egiteko (adibidez eraikinak egokitzea eta garbitasun neurrien zorrozteak dakartzan kostu gehigarriak)*

*Bestetik, Europar Batasunak ere funts bereziak iragarri ditu datozen urteetan izango ditugun erronkei aurre egiteko eta COVID19aren izurriteak areagotutako krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioak berreraikitzeko. Erronka horiei tokiko eremutik ere egin beharko zaie aurre eta, horretarako, ezinbestekoa da udaletara funtsa horiek heltzea eta udalek (aniztasun osoa kontuan izanik dagokion ordezkaritzaren bidez) funts horien lanketan zuzenean parte hartzea, Nafarroako Gobernuak ahalbidetu duen bezala.*

*Horrenbestez, Astigarragako Udaleko udalbatzak ondokoa adosten du:*

*1. EUSKO JAURLARITZARI EAEko udalentzako*

*La situación de alarma ha provocado también pérdidas económicas en los ayuntamientos como consecuencia del abandono de muchos servicios municipales.*

*Además de la reordenación de las inversiones, los ayuntamientos han sufrido cambios en sus ingresos, reduciendo los que preveían obtener a través de tasas y precios públicos, y se reducirá considerablemente la cantidad que deberían recibir a través del Fondo Financiero Foral.*

*La crisis de la COVID19 ha generado nuevas necesidades a las que las instituciones públicas están obligadas a dar respuesta. Siendo los ayuntamientos las instituciones más cercanas a la ciudadanía, en este momento es muy importante garantizar su capacidad económica.*

*Por ello, corresponde al Gobierno Vasco la creación de un Fondo extraordinario especial para los ayuntamientos para atender, al menos, las siguientes necesidades municipales:*

*1. Para hacer frente a las pérdidas sufridas en los servicios municipales*
*2. Para hacer frente a los gastos de adaptación de los servicios y puestos de personal al teletrabajo.*
*3. Para hacer frente a las situaciones de emergencia de la población*
*4. Brecha informática para sufragar los gastos derivados de la alimentación infantil y de las inversiones realizadas por los ayuntamientos en materias que no sean de competencia municipal*
*5. Para hacer frente a las nuevas necesidades educativas y sanitarias que se planteen a los ayuntamientos (por ejemplo, la adecuación de edificios y los costes adicionales que supone las medidas de limpieza).*

*Por otro lado, la Unión Europea también ha anunciado fondos especiales para hacer frente a los retos a los que nos enfrentaremos en los próximos años y para reconstruir las consecuencias de la crisis económica y social acentuada por el COVID19. Retos a los que también habrá que hacer frente desde el ámbito local y para ello es imprescindible que lleguen a los ayuntamientos y que éstos (teniendo en cuenta la diversidad a través de la representación correspondiente) participen directamente en su elaboración, tal y como ha permitido el Gobierno de Navarra.*

*Por ello, el Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga acuerda:*

*ezohiko diru funts berezi bat sortzeko eskatzen dio, udalek COVID19aren krisiaren ondorioz jasan behar dituzten gastu hauei aurre egiteko:*

*1. Udal zerbitzuetan izaniko galerak*

*2. Udalek zerbitzuak eta langile postuak telelanera egokitzeko gastuak*

*3. Herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko gastuak*

*4. Arrakala informatikoa, haurren elikadura zein udal eskumenekoak ez diren beste gai batzuetan udalek egindako inbertsioengatik sortutako gastuak*

*5. Hezkuntza eta osasun arloan udalei sortuko zaizkien beharrizan berriei aurre egiteko gastuak (adibidez eraikinak egokitzea eta garbitasun neurrien zorrozteak dakartzan kostu gehigarriak)*

*2. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu Europatik datozkeen funtsen %30 udaletara bideratzea ziurta dezala.*

*3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu Europatik datozkeen funtsen banaketa zein lanketa garatuko den guneetan EAEko udalen aniztasun osoa ordezkatua egotea eta ordezkaritza bidez parte hartze zuzena ziurtatzea.*

*4. Mozio hau Eusko Jaurlaritzari jakinaraztea.*

*1.- Solicita al GOBIERNO VASCO la creación de un fondo extraordinario destinado a los ayuntamientos de la CAPV para hacer frente a los siguientes gastos a los que están sometidos como consecuencia de la crisis de la COVID19:*

*1.Pérdidas en los servicios municipales*
*2. Gastos de adaptación de servicios y puestos de personal por parte de los Ayuntamientos al teletrabajo*
*3. Gastos para hacer frente a situaciones de emergencia ciudadana*
*4. Brecha informática, alimentación infantil y gastos por inversiones realizadas por los ayuntamientos en materias que no sean de competencia municipal*
*5.Gastos para hacer frente a las nuevas necesidades que se planteen a los ayuntamientos en materia educativa y sanitaria (por ejemplo, adecuación de edificios y costes adicionales en medidas de limpieza)*

*2. Instamos al Gobierno Vasco a asegurar que el 30% de los fondos procedentes de Europa se destinen a los ayuntamientos.*

*3. Instamos al Gobierno Vasco a que en los espacios donde se desarrolle la distribución y elaboración de los fondos procedentes de Europa esté representada toda la diversidad municipal de la CAPV y asegure la participación directa a través de la representación.*

*4. Comunicar la presente moción al Gobierno Vasco.*

Mikel zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du bere alderdiak testu alternatibo bat aurkeztu duela, baina ez duela aurrera egin. Gaineratu du EHBildurekin bat datorrela udalerri guztiak kontuan hartzearen beharrarekin, baina Eudelen akordioa errespetatu behar dela, eta gaia mahai instituzionaletako partaidetzatik bideratu behar dela.

Toma la palabra el concejal Mikel y señala que su partido había presentado un texto alternativo que no ha prosperado. Añade que comparte con EHBildu la necesidad de que se tenga en cuenta a todos los municipios, pero que se debe de respetar el acuerdo de Eudel, y que se debe de enfocar el tema desde la participación en las mesas institucionales.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du PSOE-EErekin ados dagoela, eta gaia Eudelen bidez landu behar dela. Gaineratu du udalen egoera beste erakunde publikoetan ere ematen dela, egia dela udalen sarrerak murriztu egin direla -baina aurreikusitako baino gutxiago - eta gastu gehiago izan dituela, baina egoera honen ondorioz gastu handiena jasan dituen administrazioa Jaurlaritza dela (osasun eta hezkuntza gastuak).

La Concejala, Nerea, toma la palabra para manifestar su conformidad con el PSOE-EE y la necesidad de tratar el tema a través de Eudel. Añade que la situación de los ayuntamientos también se da en otras instituciones públicas, y que si bien es cierto que los ingresos municipales han disminuido (aunque en menor medida de lo previsto) y ha habido más gastos, el Gobierno Vasco ha sido la administración que más gastos (sanitarios y educativos) ha tenido que asumir como consecuencia de esta situación.

Ondoren, bozkatu egin da eta mozioa onartu da, a**ldeko 7 botoekin** (*Astigarragako EHBildu), **eta kontrako 6 botoek**in **abstentzio 1ekin** (Udal talde Sozialista eta Astigarragako EAJ-PNV*)

A continuación se procede a votar y se **aprueba** la moción con **con 7 votos a favor** (Astigarragako EHBildu) **y 6 votos en contra** (*Grupo Municipal Socialista* y EAJ-PNV de Astigarraga).

**8.-Sare Astigarragak urtarrilaren 9ko "Bidea gara"mobilizazioarekin bat egiteko adierazpen instituzionala.**

**8.- Declaración institucional de Sare Astigarraga para sumarse a la movilización "Bidea gara"" del 9 de enero.**

Alkateak azaldu du Bozeramaileen Batzordean erabaki dela testua aurkeztea adierazpen instituzional gisa onartzeko. Ondoren, Sare Astigarragak erregistratutako testu hau aurkeztu du, onartua izan dadin*:*

El alcalde explica que en la Junta de Portavoces se ha acordado presentar el texto para su aprobación como declaración institucional. A continuación, presenta, para su aprobación, el siguiente texto registrado por Sare Astigarraga:

*Elkarbizitzaren eta konponbidearen norabidean, egun indarrean jarraitzen duen eta horrenbeste sufrikario eragiten duen salbuespenezko espetxe-politika honekin amaitu beharra dagoela adierazi nahi dugu.*

*En el camino hacia la convivencia y hacia la resolución, queremos manifestar que es imprescindible dejar atrás la política penitenciaria de excepción vigente actualmente, esa política que tanto sufrimiento está generando.*

*Azken urteetan euskal presoek oraindik ere jasaten duten urrunketari eustea, gaixo larriak kartzelan mantentzea, ia zigorraldi osoa lehen graduan egotea… gutxi balitz, aurten denoi eragin digun COVID-19ak sortutako egoera gehitu behar zaio. Senide askok 9 hilabete luze daramatzate besarkada bat eman gabe, aita edo ama muxukatu gabe…*

*Al alejamiento que siguen sufriendo las presas y los presos vascos, al hecho de mantener a las personas presas con enfermedades graves encarceladas, a la situación de mantenerles en el primer grado durante casi toda su condena…, circunstancias ya graves de por sí, hay que añadirle ahora la pandemia de la COVID-19. Muchas y muchos familiares llevan más de 9 meses sin poder abrazarse, sin poder dar un beso a su padre y a su madre…*

*Horregatik, udaletxe honek ere bat egiten du salbuespenezko espetxe politikarekin amaitu eta konponbidearen eta elkarbizitzaren norabidean pauso bat ematea eskatzen duen urtarrilaren 9ko "Bidea Gara" mobilizazioarekin. Eta dei egiten diegu gure herritarrei bertan parte har dezaten.*

*Por ello, este ayuntamiento quiere mostrar su adhesión a la movilización "Bidea Gara" convocada para el 9 de enero, la cual reivindica la necesidad de poner fin a la política penitenciaria de excepción y de avanzar en el camino de la convivencia y de la resolución. Así mismo, hacemos un llamamiento a las vecinas y a los vecinos para que participen en esa movilización.*

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du aldarrikapenarekin ados daudela, baina kezkatzen diela mobilizazioen deia, dena den, pentsatzen dutela neurri egokiak hartuko direla.

Toma la palabra la Concejalapara manifestar que están de acuerdo con la reivindicación, que les preocupa la convocatoria de movilizaciones, pero que piensan que se adoptarán las medidas oportunas.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por unanimidad.

**9.- Informazio, galdera eta eskariak.**

**9.- Información, ruegos y preguntas.**

a.- **Gabonak**

a.- **Navidades**

Nerea zinegotziak jaiak zoriondu ondoren, adierazi

La concejala Nerea, tras felicitar las fiestas, señala

du espero duela herritarrek zentzuk jokatzea egun horietan.

que confía en que la ciudadanía juegue esos días.

b.- **Covid 19**

Alkateak urte osoko datuen berri eman du, eta adierazi Astigarragan guztira 280 bat gaixo egon direla, baina ez hildakorik.

Gaineratu du egoera oraindik ez dela bere izaerara etorri, eta bide luzea gelditzen dela.

Amaitzeko, jaiak zoriondu eta erantzukizunez jokatzeko eskatu aurretik, eskerrak eman dizkie koporazioko kideei eta Udaleko langileei urte zail honetan egindako lanagatik.

b.- **Covid 19**

El Alcalde informa de los datos de todo el año, señalando que en Astigarraga ha habido unos 280 caso, pero no fallecidos.

Añade que la situación aún no ha venido así y que ha quedado un largo camino.

Para finalizar, y antes de felicitar las fiestas y pedir que se actúe con responsabilidad, agradece a las personas integrantes de la coporación y los/las trabajadores del Ayuntamiento el trabajo realizado en este difícil año.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2020ko abenduaren 22an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria